

Herriko kontseiluaren 2018.05.25eko bilkura

Hor zirenak : Jean-Michel Coscarat, Marie-Agnès Haristoy, Antton Curutcharry, Lisa Dumoulin, Daniel Ithurburua, Bernadette Mousquès, Isabelle Arangoits, Frantxoa Mocho, Annie Juantorena, Eñaut Larre, Betti Olçomendy, Agnès Gorostiague, Christelle Errecart Jean-Baptiste Lambert, Marie-Baptiste Etcheverry, Dominique Mendibil.

Hor ez zirenak : *Sébastien Clauzel (ahalordea Daniel Ithurburuari emana), Monika Indart (ahalordea Isabelle Arangoitseri emana).*

Gai ordena :

1. Kontzesio prezioen finkatzea eta kontzesioen berritzea eta 2 Columbariumen plantatzea :

- Hilherrietako berrogei ta hamar urteko kontzesioen berritzearen prezioa : 200€koa izanen da.
- Gainera, galdera ukan ondotik, bi columbarium eraikiak izanen dira hilherrietan 8772€rentzat. Kaxu huntan ere kontzesioen prezioak finkatu behar dira. 450€ proposatua da kontzesio batentzat eta 100€ bere arraberritzearentzat.
- Bukatzeko, uzte estatuan diren hilobien berrizhartzeko prozedura bat engaiatua da. Herriko kontseilua, aho batez, kontzesioen prezioen finkatzearen alde agertu da.

2. Leizparz eta Eiheraldeko departamenduko errepideen antolaketa :

Departamenduko kontseiluak proposatzen ditu hobekuntzak Leizparzeko eta Eiheraldeko bideen segurtatzeko. « Beharriak » eta « platerak » izanen dira autoen emekitzeko et 30km/h-ean pasaraziazteko. Departamenduko kontseiluak enrobiak ere eginen ditu leku hortan. Karrikako arroila ttipi bat hoditua izanen da (Sahores eta Gortaryren aintzinean). Behien pasaia bat ezarria izanen da Haristoyko aldean (Bidea moztua izan litaike bi egunez). Ber antolamenduak izanen dira Eiheralden (platerak, beharriak eta arteko lur zerrenda bat)

Herriko kontseilua, aho batez, Leizparzeko eta Eiheraldeko departamenduko errepideen berantolaketaren alde agertu da.